

Kulturaren Ekonomiari buruzko hastapenak: oinarriak eta erronka teorikoak

Introduction to Cultural Economics: Theoretical Foundations and Challenges

Juan Prieto-Rodríguez

Oviedoko Unibertsitatea

Arantza Ugidos

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

DOI: <https://doi.org/10.69810/ekz.1507>

Esker onak: adierazi nahi dugu oso zorionekoak garela Vicky ezagutu, eta pertsona berezi horrekin denbora, lana eta adiskidetasuna partekatu ditugulako. Baina, zoritxarrez, denbora hori bortizki amaitu da eta hutsune handia geratu zaigu.

Juan Prieto Rodríguez Europako Batzordeak finantzatutako (HORIZON-CL2-2023-HERITAGE-01-10113262) «CULTURALITY; CULTUral heritage in RurAl remote areas for creative tourism and sustainabiLITY» proiektuko kide da, baita «Escenarios para el arte» (EsArt) TALDEKO kide ere. Talde hori Asturiasko Printzerriko organismoetako ikerketataldeetarako laguntza-programaren onuradun da (GRU-GIC-24-052), eta Asturiasen Ikerketa Zientifiko Aplikatua eta Teknologia Sustatzeko Fundazioak (FICYT) eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) finantzatzen dute. Era berean, Espainiako Gobernuaren Estatuko Ikerketa Agentziaren laguntza finantzarioa jasotzen du PID2022-137352NB-C43 proiektuaren bidez.

Arantza Ugidos Eusko Jaurlaritzak finantzatutako IT1461-22 Euskal Unibertsitate Sistemako ikerketa-taldeko kide da.

1. SARRERA

Ekonomiaz aldizkariaren ale berezi bat Kulturaren Ekonomiari eskaintzeko aukera dugu (kapitulu hau ale berezi horren sarrera da), ikerketa-esparru horri

buruzko interesa gero eta handiagoa delako eta gure kide eta lagun Victoria María Ateca Amestoyri omenaldi bat egin nahi diogulako. Ateca Amestoy irakasleak egin-dako ekarpena funtsezkoa izan da Kulturaren Ekonomia diziplina akademiko aintzatetsi gisa finkatzeko Espainiako unibertsitate-eremuan.

Euskal Herriko Unibertsitatetik (UPV-EHU), Ateca Amestoy irakaslea Espai-niako eta beste herrialde batzuetako hainbat unibertsitatetako ikertzaileekin elkarla-nean aritu zen, gaur egun esparru hori zedarritzen duten gaiei buruzko ikerketa sus-tatuz. Bere zorrotasun akademikoa eta lan-ahalmena zirela medio, erreferentea izan zen diziplinan, eta hark baterako proiektuetan parte hartzeak kalitate-bermea eta aintzatespen akademikoa ekarri zituen askotan. Bere ibilbidean, UPV/EHUko eta Espainiako, Europako eta Hispanoamerikako irakasleekin lan egin zuen eta ko-munitate zientifikoaren bibliografia-gordailu nagusietan indexatutako aldizkarietan argitaratu zituen bere lanak. Ziur gaude bere ondare akademikokoak iraungo duela eta Kulturaren Ekonomiari sendotasun handiagoa ematen lagunduko duela.

Ikerketa eta azterketa ekonomikoaren esparru horrek garrantzi handia hartu du azken hamarkadetan, ekonomia garatuenetan zerbitzu-sektoreak pisu gehiago hartu ahala, banakoek aisialdi luzeagoa izan ahala eta kultur ondasunen kanpo-efektuez eta balioaz gehiago jabetu ahala. Hirugarren sektorearen gainerakoan gertatzen ari den bezala, kultur sektorearen digitalizazioa eta globalizazioa aldaketa ga-rrantzitsuak sortzen ari dira. Plataformek (Netflix, Spotify eta YouTube, adibidez) edo liburu elektronikoen garapenak aldatu egin dute kultur ondasunak sortu, bana-tu eta kontsumitzeko modua. Era berean, aldaketa-testuinguru honetan, COVID-19aren pandemiak askoz gehiago bizkortu zuen formatu digitaletarako joera. Hala eta guztiz ere, egile zenbait baikor ageri dira, digitalizazioak kultur parte-hartzea de-mokratizatuko duela-eta, baina ameskeria izan liteke hori, gerta litekeelako kultura-rako sarbide digitalak lehendik dauden kontsumo-ereduak mimitizatzea, eta, ondo-rioz, kulturarako sarbidean desberdintasunak eta polaritatea areagotzea (Mihelj *et al.*, 2019; De la Vega *et al.*, 2020; Ateca-Amestoy eta Castiglione, 2023). Sarbide di-gitala benetan eraginkorra eta orokorra izateko, ez da aski eskuragarritasun teknolo-gikoarekin —lehen mailako arrakala digitala—. Funtsezkoa da, halaber, kultur edu-kiekin elkarreragin garrantzitsua izateko interesaren eta behar diren trebetasunen artean desberdintasunik ez egotea. Horrela bakarrik murriztu ahal izango dira lite-raturan identifikatutako maila desberdinetako arrakala digitalak (Van Deursen & Van Dijk, 2014; Scheerder *et al.*, 2020). Kontu hori garrantzitsua da kultur politika optimoak diseinatzeko, eremu horretan kulturaren ekonomialarien partaidetza funtsezkoa baita estrategia eraginkorrak sortzeko.

Kulturaren Ekonomia garrantzitsua da tresna ekonomikoak kulturaren eta ar-tearen sektorearen azterketari aplikatzeko duen ahalmenarengatik. Kapitulu honen helburua da diziplina horri buruzko ikuspegi orokorra ematea, eta diziplina hori zientzia ekonomikoaren eta azterketa ekonomikoaren esparruan kokatzea, bere ikerketa-ildo nagusiak eta aurre egin beharreko erronka nagusietako batzuk be-

rrikusita. Ikuspegi ekonomikotik begiratuta, kultur ondasunek eta zerbitzuek balio estetiko eta sinbolikoa izateaz gain, ondasun eta zerbitzu horien ekoizpenean, banaketan eta kontsumoan eragina duten ezaugarri ekonomikoak ere badituzte. Tes-tuinguru horretan, Kulturaren Ekonomiak hainbat alderdi aztertzen ditu, hala nola arteen finantzaketa, kultur merkatuen egitura, esku-hartze publikoaren eginkizuna eta eskaintzaren eta eskariaren dinamikak. Gainera, kultur ondasunen kudeaketare-kin eta balioespenarekin lotutako arazo praktikoak azaltzen ditu, baita merkatuaren hutsegiteak ere —sektore publikoak eremu horretan jardutea justifikatzen dute-nak—.

Lanaren gainerako zatia honela egituratuta dago: 2. atalean, Kulturaren Ekono-miaren diziplina ekonomialariek erabiltzen duten *kultura* kontzeptua oinarri hartu-ta definitzen da. 3. atalean, kultur ondasunen ezaugarri nagusiak eta ezaugarri ho-rien ondorioz sortzen diren esleipen-arazoak jasotzen dira. Kulturaren finantzaketaren arazoa azaletik aztertzen da 4. atalean. Azkenik, 5. atalean, ondorio batzuk ateratzen dira eta ale berezi honetan jaso diren lanen aurkezpen labur bat egiten da.

2. EKONOMIA ETA KULTURA

Kulturaren Ekonomiaren kontzeptu funtsatu bat lortzeko, gure proposamena da abiapuntutzat hartzea Ekonomia diziplina akademiko gisa eta diziplina hau praktikatzen dugunok kulturari orokorrean ematen diogun esanahia. Kontzeptu ho-riek ezarri ondoren, Kulturaren Ekonomia, agian modu tautologiko samarrean, ho-nela uler liteke: ekonomialariek kultur sektorean sartzen dituzten sektoreak analisi ekonomikorako tresnen bidez aztertzen dituen jakingaia.

Alde batetik, Ekonomia diziplinaren aztergaia da gizarteek zer-nola kudeatzen dituzten beren baliabide urriak gizabanakoen premiak asetzeko. Gaur egungo eko-nomietan, merkatuak rol nagusia jokatzten du baliabideak esleitzeko garaian, berak erabakitzen baitu zer, zenbat, nola eta norentzat ekoitzi. Hala eta guztiz ere, merka-tuek ez dute beti modu efizientean funtzionatzen, eta horren ondorioz merkatuaren hutsegiteak gertatzen dira, hala nola kanpo-efektuak, ondasun publikoak eta infor-mazio osatugabea. Hutsegite horiek, kasu askotan, estatuak esku hartzea justifi-katzen dute.

Bestalde, ekonomialariek kultura modu «positiboan» definitu ohi dute, hau da, balio-iritzi estetikorik gabe. Kulturaren Ekonomian onartu ohi den hurbilketa bat da kultur jarduerak hiru ezaugarri nagusi hauek izan behar dituztela:

- Ekoizpen gutxi-asko sormenezkoak izan behar dira.
- Balio sinboliko edo informatzaile handia dute.
- Jabetza intelektualaren eskubideen mende daude.

Definizio hori kontuan hartuta, Kulturaren Ekonomiak sektore asko aztertzen ditu, honako hauek barne hartzen dituztenak: arte eszenikoak (antzerkia, musika, dantza), ikusizko arteak, kultur ondarea, kultur industriak (ikus-entzunezkoen industria, argitalpen-industria, industria diskografikoa) eta sormen industriak zentzu zabalagoan.

Ondorioz, Kulturaren Ekonomiaren aztergaia haxe izan liteke: gizarteak zernola kudeatzen dituen bere baliabide urriak kultur ondasunak eta zerbitzuak ekoizti, banatu eta kontsumitzeko. Ikuspegi horretatik, *kultura* esanahi sinbolikoak sortu eta transmititzen dituzten jardueren multzoa da, eta jarduera horiek jabetza intelektualaren gaineko eskubideen bidez babestuta daude. Azterketa ekonomikoak kulturaren definizio positibo bat hartzen duenez oinarritzat, ekonomialariek, kultur produktuen kalitate artistikoari erreparatu ordez, honako hau aztertzen dute: baliabideak nola esleitzen diren sektore horretan, prezioak nola erabakitzen diren eta politika publikoek nola eragin dezaketen kulturaren ekoizpenean eta kontsumoan.

Kultur ondasuntzat zer hartzen den definitzea garrantzitsua denez, ondorengo atalean sakonduko da ondasun horien ezaugarri nagusietan eta ezaugarriok merkatuaren esleipen efizientean eragin dezaketen zailtasunetan.

3. KULTUR ONDASUNEN EZAUGARRI EKONOMIKOAK

Kultur ondasunek ekonomiako beste ondasun eta zerbitzu batzuetatik bereizten dituzten ezaugarri ekonomikoak dituzte. Lehenik eta behin, informazio sinboliko asko dute. Horren ondorioz, esperientzia-ondasunak dira; horrek esan nahi du kontsumitzaileek ondasun horien kalitatea kontsumitu ondoren bakarrik ebalua dezaketela erabat (adibidez, film bat, eleberri bat edo museo bateko bilduma). Muturreko kasua dira kultur ondasun batzuk, hala nola artelan jakin batzuk, konfiantza-ondasunak edo *trust good* baitira; alegia, kontsumitu ondoren ere, beren balioari edo ezaugarriari buruz erabat ziur ez gauden ondasunak. Ezaugarri horrek zalantza handia sortzen du ekoizleengan eta kontsumitzaileengan, eta horren ondorioz, kultur eskarian oso eragin handia dute faktore jakin batzuek, hala nola ospeak, kritikek eta gomendioek. Bitartekariak, kritikariak eta adituek, literaturan eskuarki *gatekeeper* deitzen zaienek, funtsezko rola jokatzen dute kultur ondasunen merkaturako balioa zehazteko garaian.

Bigarrenik, kultur produktuak heterogeneoak izan ohi dira, hots, ez daude berdin-berdinak diren bi antzezlan, pelikula edo liburu. Heterogeneotasun horrek zaildu egiten du ekoizpen-prozesuen estandarizazioa eta horren ondorioz, «masterra» edo lehen kopia sortzeak kostu finko oso handiak eragiten ditu. Hala eta guztiz ere, digitalizazioak izugarri gutxitu ditu «masterraren» erreproduktzio-kostuak, eta, horren ondorioz, komertzializazioari lotutako kostu marjinalak oso txikiak dira. Horrenbestez, ekonomia-eskala handiak eta irismen nabarmenekoak sortzen dira kul-

tur industria batzuetan, eta horrek bide ematen du merkatu-egitura oso kontzentratuak sortzeko. Horri sare-ekonomia indartsuak gehitzen bazaizkio —eskaria areago kontzentratzen dute—, ondorioa da enpresa gutxi batzuek kultur sektorea kontrolatzea. Adibidez, bost konpainiak kontrolatzen dute merkatu zinematografikoa; lauk, musikaren industria; eta bostek, argitalpen-merkatuaren gehiena. Kontzentrazio hori, jakina, beste arrazoi bat da esku-hartze eta arauketa publikoa egiteko.

Hirugarrenik, kultur kontsumoak gizabanakotik haratago doazen onurak ekar ditzake, hala nola gizarte-kohesioa, hezkuntza, edo giza kapitalaren garapena. Kanpo-efektu positibo horiek merkatu-hutsegite bat dira, eta horrek ere justifikatzen du esku-hartze publikoa egitea, optimotik beherako zuzkidura-maila zuzentzeko.

Halaber, kultur ondasun asko, kontsumoari dagokionez, ez dira baztertzailak, ezta lehiakizkoak ere; alegia, ondasun publikoak dira. Tasun hori areagotu egin da digitalizazioarekin; izan ere, formatu digitalekin, mugagabea da ondasuna eskuratu dezakeen pertsona kopurua, eta ez da murrizten ondasunaren eskuragarritasuna. Kontsumitzaile potentzialak baztertu ezin direnez, gizabanako batzuek ondasun horietatik onura atera dezakete, nahiz eta ondasun horiek finantzatzen lagundu ez (*free-riderren* edo *aprobetxategien* arazoa). Hala, pizgarriak murrizten zaizkie ekoi-zle pribatuei, ezin baitituzte beren kostuak estali prezioaren bidez. Gainera, baztertzeko mekanismorik ez izateak zaildu egiten du ekoizpen-kostuen benetako balioa islatzen duen eta kostu horiek estaltzen dituen prezioa ezartzea. Horrek merkatuan oreka efizientea lortzea eragozten du, eta esku-hartze publikoa egiteko beste arrazoi bat da.

4. KULTURAREN FINANTZAKETA

Kulturaren Ekonomian behin eta berriz agertzen den eztabaidetako bat kultur jardueren finantzaketari buruzkoa da. Tradizionalki, kultura finantzaketa publikoaren mende egon da hein handi batean, dela zuzeneko dirulaguntzen bidez, dela onura fiskalen bidez, edo administrazio publikoek ondasunak eta zerbitzuak erosita. Mendekotasun horren arrazoia dira merkatuaren hutsegiteak —kultur produktuen izaeragatik—, hala nola existentzia-balioa, aukera-balioa eta legatu-balioa. Balio horiek erakusten dute kultura onuragarria dela bai zuzeneko kontsumitzaileentzat, bai gizarte osoarentzat, herrialde bateko gizarte-kohesioa, hezkuntza eta prestigioa areagotzen baititu.

Halere, finantzaketa publikoa kritikatzten dutenak ere badira; izan ere, batzuen ustez, finantzaketa publikoak mendekotasuna sor dezake, berrikuntzarako pizgarriak ken ditzake, eta merkatuko prezioak desitxuratu. Horregatik, azken hamarkadetan, finantzaketa publikoaren eta pribatuaren arteko oreka handiagoa izatea sustatu da, eta, horretarako, mekanismo batzuk bultzatu dira, hala nola mezenasgoa edo babesletza.

Bestetik, finantzaketa pribatuaren iturburua sarreren edo kultur ondasunen salmenta da. Alabaina, kulturaren sektorean, prezioak finkatzea gai konplexua da, ekoizpen-kostuak eta ondasun horiek ekoitzi eta banatzen diren merkatu-egitura kontuan hartu behar baitira. Alde batetik, kostu marjinala oso txikia izan daiteke, eta prezio-finkapen efizientea, kostu marjinala berdinduta, baliteke ez izatea aski kostu finkoak berreskuratzeko. Bestetik, kultur ondasunak aldebiko plataformen edo *two-sided marketen* bidez banatzeak merkatu-hutsegiteak eragiten ditu, sareko kanpo-efektuak eta eskala-efektuak daudelako, zeintzuek gehiegizko kontzentrazioa eragin, eta jokabide monopolistikoak aldezten baitituzte. Era berean, aldebiko plataformen prezioak finkatzeko estrategia optimoak prezioen egitura desitxuratu dezake, erabiltzaile talde bat faboratu baitezake, eta beste talde bati, aldiz, prezio handiak kobratu. Horren ondorioz, benetako kostuak islatzen ez dituzten prezioak sor daitezke eta plataforma handien nagusitasuna indartu.

Era berean, kasu askotan, kontzertuetarako edo museoetarako sarreren prezioek ez dute kultur esperientziak kontsumitzailearentzat izan duen benetako kostua islatzen; izan ere, kontsumitzaileek faktore inplizitu zenbait kontuan hartzen baitituzte, hala nola joan-etorrietarako denbora edo ostatu-gastuak. Gainera, kultur ondasunen eskarian alderdi kualitatiboek eragiten dute; esaterako, esperientziaren kalitatea, artisten sona, instalazioen erosotasuna eta abar.

Beraz, kultur sektorean prezioak finkatzea bereziki konplexua da hainbat faktorerengatik; besteak beste, hauengatik: ondasunen heterogeneotasuna, ondasun publikoen berezko ezaugarriak eta kanpo-efektu positiboak. Horri gehitu behar zaio ondasun horiek jabetza intelektualaren eskubideen bidez babesten direla eta kontzentrazio-maila handiko merkatu-egiturak daudela. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da kultur politika bat izatea, kultura eskuratzea sustatzen duena eta baliabideen esleipena eta prezioen finkapena arautzen dituen.

5. ONDORIOA

Arestian esan dugunez, Kulturaren Ekonomia azterketa-esparru heterogeneoa da, kultur ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena, banaketa eta kontsumoa aztertzen dituen. Ondasun horiek ezaugarri komunak badituzte ere, oso desberdinak dira, batez ere ekoizteko eta banatzeko prozesuetan. Hortaz, ez da harritzekoa *Ekonomiaz* aldizkariaren ale berezi honetako lanek gai asko aztertzea, kultur politiken eta kultur partaidetzaren ebaluaziotik hasi, eta teknologiak eta adimen artifizialak kultur sektorean duen eragineraino.

Ale honetan jorratutako gaiak taldekatu beharko balira, hiru ardatz nagusi bereizi ahal izango lirатеke: teknologia berrien eta adimen artifizialaren rola; kultur partaidetza eta kultur kapitalaren eta kultur politiken garrantzia; eta kultur erakundeen kudeaketa.

Digitalizazioak eta berrikuntza teknologikoei kultur sektorean eragindako aldaketak izan dituzte aztergai nagusi **John O'Hagan** eta **Marta Zieba** egileek euren az-

terlanean (2025). Egile horiek aztertu dute zer-nola ari diren aldatzen genero horren ekoizpena eta kontsumoa, teknologiaren eta musika klasikoko kontzertuak eta ikuskitunak *streaming* bidez zabaltzearen ondorioz. Lan horrek orkestren etorkizunari buruzko hainbat galdera dakartza; izan ere, digitalizazioa gero eta handiagoa den honetan, «dena irabazlearentzat» (*the winner takes it all*) fenomenoaren areagotu egin liteke.

Bestetik, **Concetta Castiglione** eta **Davide Infante** (2025) aztergai izan dute Amerikako Estatu Batuetako kultur sektoreak zer-nola baliatzen duen adimen artifiziala. Emaizten arabera, adimen artifiziala erabiltzearena joera hasiberria da esparru horretan, ekonomiaren gainerakoan bezala, baina aldaketa apurtzaileak aurreikusten dira etorkizun hurbilerako. Gaur egun, adimen artifiziala askotxo erabiltzen da kultur industrian. Adibidez, online zerbitzuen (hala nola Spotify, Amazon Music eta YouTube) kultur eskaintza adimen artifizialeko algoritmoen bidez pertsonalizatzeko erabiltzen da. Halaber, kultur ondarea ezagutarazten lagun dezakete itzulpen automatikoko eta azpititulatzeko tresnen bidez; izan ere, horri esker, tokiko lanek nazioarteko audientzia izan dezakete. Gainera, adimen artifiziala beste jarduerak batzuetarako ere erabiltzen da, hala nola musika egiteko, irudiak sortzeko eta arte-lan digitalak egiteko, baita kaltetutako piezak berriztatzeko ere, pinturen eta eskulturen zati galduak osatuta. Sormen-testuak ekoizteko ere erabiltzen da, poema eta ipuinetatik hasi, eta zinemarako eta telebistarako gidoietaraino; nahiz eta horrek egiletza eta originaltasuna kolokan jarri aro digitalean.

Bestalde, **Beatriz Plaza Inchausti**, **Marisol Esteban Galarza** eta **Ibon Aranburu Amianok** (2025) aztertu dute arkitektura ikonikoak zer eragin izan duen turismoan, eta Frank Gehryk diseinatutako eraikinen —Marqués de Riscal upategia eta Bilboko Guggenheim museoa— elkarreragina nabarmendu dute. Azterlan horren arabera, arkitektura ikonikoa tresna eraginkorra izan daiteke markak birposizionatzeko eta turistak erakartzeko, inpaktu ekonomiko positiboa eraginda eskualdean. Gainera, sare sozialen eta online edukien rola azpimarratzen dute, mota horretako eraikinei loturiko turismo-eskaria konfiguratzeko baitute, horien ikusgarritasuna anplifikatuta eta kultur jomugon erakargarritasuna indartuta. Ikerketak iradokitzen du sakonago aztertu behar direla eraikin ikonikoen eta horiek kultur turismoan duten eraginaren arteko lotura semiotikoak.

Azkenik, teknologia berriek kultur sektorean duten eraginari buruzko azterketa bukatzeko, **Sara Suárez Fernández** eta **Hugo Rodríguez Gómez** egindako lana dago (2025). Artikuluan, Espainiako eskualdeen arteko desberdintasunak aztertu dituzte, bideojokoen kontsumoari dagokionez, Espainiako Kultur Ohituren eta Praktiken Inkestetako datuak erabilita. Ikusi dute eskualdeen arteko desberdintasunak murriztu egin direla denboraren poderioz, baina zenbait autonomia-erkidegotan bere horretan jarraitzen dutela portaera-eredu espezifikoek.

Ale berezi honetan jaso diren lanen bigarren ardatza kultur partaidetza, kultur gustua eta kultur kapitala sortzea izan daitezke. Hori da **José Ignacio Azuela Flore-**

sen lanaren (2025) gai nagusia, honako hau aztertu baitu: kulturarekiko esposizio goiztiarrak eragina du helduaroako kultur partaidetzan, eta egiaztatzen da kultur ohi-turak belaunaldiz belaunaldi transmititzen direla. Azterlan horrek azpimarratu du gurasoen eta eskolen eginkizuna funtsezkoa dela kultur kapitala eratzeko, eta nabar-mendu du kultur jardueretan parte-hartze goiztiarra sustatzen duten politikak behar direla kultur irispideko desberdintasunak murrizteko, bereziki kultur industria han-diek ekoitzi eta sustatzen ez dituzten kultur ondasunei dagokienez, horiek beren sustapen-mekanismoak baitituzte.

Ilido beretik, **Luisa Gutiérrez Navratilek** eta **María José Pérez Villadónigak** Espainiako irakurketa-ohituren belaunaldiarteko transmisioa aztertu dute (2025). Ikusi dute, halaber, haurtzaroan irakurketarekiko esposizio goiztiarra izateak sen-dotu egiten dituela irakurtzeko ohiturak bizitzan zehar eta, gainera, eragina duela ohitura horiek ondorengo belaunaldiei transmititzean. Iradokitzen dute kultur politikek gazteengan ez ezik, familietan ere jarri beharko luketela arreta, etxeetan irakurtzea sustatuta, baita helduen artean ere, haurren eta gazteen eredu izan dai-tezen.

Bestalde, **Blas Díaz León, Ignacio Martínez Fernández, Luis Palma Martos** eta **Jesús Heredia Carrozak**, Euskal Autonomia Erkidegoko arte eszenikoen eskaria desberdintzen duten faktoreak ardatz hartuta, aztertu dute kultur kapitalak zer-nola eragiten duen kultur partaidetzan, batez ere 65 urtetik gorakoetan (2025). Azterlan horretan adierazten da adintsuen kultur parte-hartzea sustatzeko politika publikoak behar direla, zahartze aktiboa sustatzeko eta kultura eskuratzeko arrakalak murriz-teko.

Azkenik, kultur politiken ebaluazioa eta kudeaketa da ale berezi honetako beste gai nagusi bat. Alde batetik, **María José del Barrio Tellado, Fátima Espinosa Case-ro, Jonathan Daniel Gómez Zapata** eta **Luis César Herrero Prietok** museoan eta kultur erakundeen kudeaketan esku hartzen duten eragileek (kudeatzaileak, sortzai-leak eta hornitzaileak) partaidetzazko kudeaketa-politikei buruz dituzten lehentasu-nak aztertu dituzte (2025). Ikusi dute talde horiek berrikuntza sozialeko eta teknolo-gikoko estrategiak lehenesten dituztela kobernantzako ekintzen aldean.

Bestalde, **Manuel Cuadrado García, María Luisa Palma Martos** eta **Juan de Dios Montoro Ponsel** desgaitasuna duten pertsonen kultur partaidetza aztertu dute (2025), eta jarrera-oztopo eta oztopo fisiko nagusiak identifikatu dituzte. Az-terlan horrek kultur inklusioaren garrantzia azpimarratu du eta estrategiak proposa-tu ditu desgaitasunak (fisikoak nahiz psikologikoak) dituzten kolektiboek kultur kontsumoa eskurago izan dezaten, eta kontsumo-esperientzia hobea, eta nabarmen-du du kultur politika inklusiboagoak diseinatu behar direla eta desgaitasuna duten pertsonentzat irisgarriak izango diren inguruneak sortu behar direla.

Ilde Rizzok (2025) kultur ondarearen eta «bertakotasunaren» arteko harremana aztertu du, eta ekonomiaren garapenean eta ongizate sozialean duen garrantzia na-

barmendu. Lan honek lurraldean ardaztutako ikuspegia proposatzen du; hots, kultur ondare ukigarriak eta ukiezinak identitate kolektiboa eta gizarte-kohesio handiagoa sortzen laguntzen dute. Bi kanpo-efektu horiek positiboak direnez, justifikatuta dago sektore publikoak esku hartzea, ondarea garapen jasangarriko estrategietan integratzen duten zeharkako kultur politikai baliabide gehiago emateko eta komunitate berean «bertakotasunari» buruzko ikuspegi desberdinak egoteagatik sortzen diren gatazkei aurre egiteko.

Azkenik, **Anna Villarroya Planasek** eta **Victoria Ateca Amestoyk** Espainiako kultur sektoreko langileen bizi-baldintzei eta ongizateari buruzko pertzepzioak aztertutakoak dituzte. Ikerketak balio dezake honetaz jabetzeko: kulturaren eta sormenaren sektorearen ahalmen ekonomiko eta sozial handiak beharrezkoa du langileek, aintzatespen sozialaz gain, aintzatespen profesional eta ekonomiko handiagoa izatea.

Hortaz, *Ekonomiaz* aldizkariaren ale berezi honetan jaso diren lanek erakusten dute Kulturaren Ekonomia diziplina askotarikoa eta konplexua dela. Kultur partaidetzatik eta kultur kapitala eratzetik hasi, eta kultur politikak eta teknologiaren eragina ebaluatzeraino, azterlan hauek gai asko landu dituzte, eta gai horiek funtsezkoak dira kultur sektoreak XXI. mendean dituen erronkak eta aukerak ulertzeko. Lan hauetan erabilitako gai, ikuspegi eta metodologiaren aniztasunari esker, gomendio praktikoak eman ahal izan dira kultur politikak formulatzeko.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- ATECA-AMESTOY, V.; CASTIGLIONE, C. (2023): Live and digital engagement with the visual arts. *Journal of Cultural Economics*, 47, 643.-692. or.
- DE LA VEGA, P.; SUAREZ-FERNÁNDEZ, S.; BOTO-GARCIA, D.; PRIETO-RODRIGUEZ, J. (2020): Playing a play: online and live performing arts consumers profiles and the role of supply constraints. *Journal of Cultural Economics*, 44(3), 425.-450. or.
- MIHELJ, S.; LEGUINA, A.; DOWNEY, J. (2019): Culture is digital: Cultural participation, diversity and the digital divide. *New Media & Society*, 21, 1465.-1485.
- SCHEERDER, A.J.; VAN DEURSEN, A.J.A.M.; VAN DIJK, J.A.G.M. (2020): Taking advantage of the Internet: A qualitative analysis to explain why educational background is decisive in gaining positive outcomes. *Poetics*, 80, 101.-426.
- VAN DEURSEN, A.J.A.M.; VAN DIJK, J.A. (2014): The digital divide shifts to differences in usage. *New Media & Society*, 16(3), 507.-526.